éste era transitable hasta el barrio de Oria, pero su escasa profundidad y las características de la bocana del río evitó que su tráfico fluyese tan abundantemente como en los otros cauces guipuzcoanos⁵⁰. Según algunos historiadores, puesto que desde Lasarte resulta más cercana la bahía de la Concha que la desembocadura del Oria, una vez llegados al actual solar lasartearra podrían desviarse y tomar el río Gorga que nace en el monte Teresategi y muere en la actual playa donostiarra de Ondarreta⁵¹. Ya que en la Antigüedad el transporte marítimo y fluvial era el más seguro, el más rápido y el más barato⁵², la presencia de varios poblados fortificados hallados en los valles del Oria, Urola y Deba sugerirían su uso desde la época protohistórica⁵³.

Esta red de caminos se vería completada con la *via maris*, la vía de la costa que cubriría el tráfico marítimo de cabotaje, basado en un principio en puertos naturales⁵⁴. Los romanos habrían potenciado la navegación marítima reforzando las infraestructuras necesarias para ello, dando a su vez un impulso a las relaciones comerciales así como a la comunicación entre el ámbito costero y el interior. Ello favorecería la construcción y regulación de los caminos que irían paralelos a la costa y que unirían los asentamientos situados en ella⁵⁵. En este tramo de la *Via maris*, *Oiasso* y su puerto habrían jugado el papel de fondeadero secundario entre los dos grandes establecimientos portuarios del cantábrico oriental, *Burdigala* (Burdeos) y *Flaviobriga* (Castro Urdiales). En consecuencia, no es de extrañar que los restos romanos más importantes de Gipuzkoa se encuentren en el Bajo Bidasoa y Oiartzualdea⁵⁶.

El tráfico marítimo y la influencia que ejercería la *civitas* de *Oiasso* en la zona habrían empujado a la creación de nuevos asentamientos, especialmente en la costa. Tal y como se ha citado más arriba, las comunidades que vivían en los territorios conquistados por Roma eran organizadas bajo el modelo de la *civitas*-ciudad romana, teniendo que adaptarse a esta nueva forma de administración los pobladores de los asentamientos fortificados del Hierro. La *civitas*-ciudad romana se estructuraba a partir de un espacio que se regía desde un lugar central (*oppidum*),

50 ESTEBAN, M.: *El País Vasco...*, *op. cit.*, 116. orr. ÍDEM: "La vía...", *op. cit.*, 30. ÍDEM: "La Vardulia...", *op. cit.*, p. 184.

51 ÍDEM: "Presencia romana en San Sebastián", en UNSAIN, J. M. (ed.): *San Sebastián, ciudad marítima*, Untzi Museoa, San Sebastián, 2008, pp. 154-155.

52 PARODI, M. J., *Ríos y lagunas de Hispania como vías de comunicación. La navegación interior en la Hispania Romana*, Editorial Gráficas Sol, Écija, 2001, p. 22.

53 ESTEBAN, M.: "La vía...", *op. cit.*, p. 31.

54 ÍDEM: *El País Vasco...*, *op. cit.*, pp. 126-128. MAGALLÓN, M. A.: *op. cit.*, pp. 229-231.

55 ESTEBAN, M.: *El País Vasco...*, *op. cit.*, pp. 128-129.

56 Entre otros: BENITO, A. M.: "Cerámicas del yacimiento submarino del cabo de Higuera (Hondarribia)", *Munibe* 40, 1988, pp. 123-163. ESTEBAN, M.: "El poblamiento...", *op. cit.*, p. 71. URTEAGA, M.: "El puente romano del Bidasoa", *Boletín Arkeolan*, 10, 2001, pp. 18-21. ÍDEM: "El puerto romano de Irun (Gipuzkoa)", en URTEAGA, M.; NOAIN, M. J. (ed.): *Mar Exterior. El occidente atlántico en época romana. Actas del congreso internacional. Pisa Santa Corce in Fossabanda 6-9 Noviembre 2003*, CSIC, Roma, 2005, pp. 85-106. URTEAGA, M.: "La minería romana en Guipúzcoa y el distrito de Oiasso (Irún)", en OREJAS, A.; RICO, C. (eds.): *Minería y metalurgia antiguas. Visiones y revisiones. Homenaje a Claude Domergue*, Colección de la Casa de Velázquez, Madrid, 2012, pp. 201-218.

Orduan finkatutako itsas trafikoak eta *Oiassoren* sorrera eta indartzeak beste gune batzuen sorrera bultzatu ahal izan zuten bai kostaldean bai barnealdean. Une horretan oraindik jendeztaturik jarraitzen zuten Burdin Aroko guneek ez zuten luzez iraun, biztanleak lurraldearen antolaketa berrira moldatu behar izan baitziren; izan ere, erromatarrek konkistatu eta probintzia bilakaturiko lurraldeak *civitasaren* ereduaren bitartez antolatu eta administratzen zituzten. Horrela, hiri erromatarrek lurralde mugatu bat hartzen zuen, buru urbano batetik (*oppidum*) kontrolatzen zena (azken hori hiribildu ordenatu bat, *urbs* bat, izan zitekeen). *Civitas* baten lurraldea, *ager* delakoa, jarraitutasunik gabea izan zitekeen, eta bigarren mailako biziguneeen bitartez kontrolatu eta ustiatzen zen⁵⁷. Gaur egungo Gipuzkoako lurraldean *Oiasso* baskoiaz gain, ziurtzat jotzen da gutxienez bi *civitates* erromatar gehiago egon zirela: *Morogi*⁵⁸ eta *Menosca*⁵⁹. Dena den, badira iturri idatziek aipatutako beste zenbait ere, orain arte aurkitu ez direnak eta, ondorioz, ezin ditugunak ziurtasunez Gipuzkoan kokatu⁶⁰. Horregatik guztiarengatik, ezinezkoa zaigu egun Andoaingo lurraldea zein *civitasen* barruan zegoen jakitea. Eskualdean kokaturiko erromatar gune nagusi horiek lurraldearen egituraketaren zutoinak osatzen zituzten, hura kohesionatuz eta beren ekonomia, hein handi batean, garai honetan sendotu zen *via marisaren* bidez bultzatuz. Kristo aurreko I. mendeko azken urteetan sortutako *Oiassoren* eta itsas trafikoaren indartzearen ondorioz, Santiagomendiko herrixka husten hasiko zen, batzuen ustetan populazioa *civitas* baskoira edo kostako beste egonleku batera, Donostia ingurura ziur asko, mugitu zelarik⁶¹. Gipuzkoako ipar-ekialdean eta kostaldean kokaturiko aztarnategiez gain, aro berean kokatu diren entitate txikiagoko beste hainbat kokagune eta elementu solte agertu dira, lurraldean barrena mugitzea errazten duten pasabide naturalen inguruan bereziki⁶². Erromatarren konkistak ekarri zituen egonkortasun politikoak eta azpiegitura

57 ESTEBAN, M.: "El poblamiento...", *op. cit.*, 59 eta 64 or.; ESTEBAN, M., IZQUIERDO, M. T.: *op. cit.*, 398 or.

58 Azkenaldian Santiagomendirekin (Astigarraga) eta Donostiarekin identifikatu izan da inguruan agertu diren aztarnen proportzio handiaren ondorioz ESTEBAN, M.: "La vía...", *op. cit.*, 29 or.; ESTEBAN, M., IZQUIERDO, M. T.: "Acerca de la costa cantábrica, el bajo Urumea en época antigua y el *Morogi* pliniano", *Munibe*, 57, 2, 2005, 401-402 orr.; CEBERIO, M.: "Nuevas aportaciones...", *op. cit.*, 238. Or.

59 Zarautz-Getarian agertutako erromatar aztarnak direla eta, *oppidum* hau bertan zegoela uste da (Esteban, "La Vardulia...", *op. cit.*, 186 eta 191. or.; ARAGÓN, A., PÉREZ CENTENO, J. M., ALBERDI, X.: "Quince años de investigaciones histórico-arqueológicas en torno a Getaria", *Munibe*, 57, 2, 2005, 435-451 orr.; IBÁÑEZ, A. (arg.), *Santa María la Real de Zarautz (País Vasco) continuidad y discontinuidad en la ocupación de la costa vasca entre los siglos V a. C. y XIV d. C.*, Aranzadi, Donostia, 2009.

60 Pliniok *Vesperies* kostaldean kokatzen duen arren, historiagile batzuek Eibar edo Azpeitia proposatu dituzte, baita Gernikako itsasadarraren inguruan ere hau barduliarren mugetatik haratago egon arren SANTOS, J., EMBORUJO, A., ORTIZ DE URBINA, E.: *op. cit.*, 463 or.; ORTIZ DE URBINA, E.: "Organización...", *op. cit.*, 276 or.; *Tritium Tuboricum* autore klasikoek kostan kokatu ez arren, Barandiaranek Mutrikuko Astigarribia auzoan zegoela uste du, *Tabuca* ordea non zegoen ere ez dakigu, plazaratu diren hipotesien inguruan, ikusi: SANTOS, J., EMBORUJO, A., ORTIZ DE URBINA, E.: *op. cit.*, 463 or. Gaur

61 *IBÍDEM*: *op. cit.*, 399 or.

62 Goi Inperioan edo Printzipatuan, aipatutako kostaldeko aztarnategiez gain, garrantzitsuena Azkoitin kokatutako Iraurgiko San Martingo nekropolia litzateke (ESTEBAN, M.: "El poblamiento...", *op. cit.*, 71 or.). Bestalde, gune populatu txikiak edo behin behinekoak adierazten duten zenbait aztarna ere agertu dira, Deba arroan bereziki: Mutrikuko lesta II kobazuloan zeramika akitaniar augustoarra agertu zen (IZQUIERDO, M. T.: "El comercio de cerámicas en la región cantábrico-aquitana: el testimonio guipuzcoano",

que podía tener forma de *urbs*, un núcleo urbano propiamente dicho. A él se añadía el *ager*, un territorio que podía ser discontinuo y que se controlaba a la vez que se explotaba económicamente mediante asentamientos de menor entidad. Estas *civitates*-ciudades ejercerían como centros vertebradores del territorio, cohesionándolo y potenciando su explotación económica mediante la red de calzadas y la *vía maris*⁵⁷. En la actual provincia, además de la *Oiasso* vascona, se da por seguro que existirían otras dos *civitates*-ciudades romanas, *Morogi*⁵⁸ y *Menosca*⁵⁹. De todas formas, las fuentes escritas señalan algunas ciudades más que hasta el momento no han podido ser identificadas, por lo tanto, no podemos confirmar su ubicación en el territorio guipuzcoano por lo que nos es imposible saber a ciencia cierta dentro de qué *civitas*-ciudad estaría ubicado el territorio andoaindarra⁶⁰. En opinión de algunos, el despoblamiento del enclave prerromano de Santiagomendi habría comenzado en estos primeros años de dominio romano, fenómeno que se aceleraría con la fundación de *Oiasso* y el reforzamiento del tráfico marítimo a finales del s. I a. C., desviando su población a esta última *civitas*-ciudad o hacia la bahía de la Concha⁶¹. Además de los yacimientos situados en el noreste y la costa de Gipuzkoa, durante estos años han ido apareciendo asentamientos menores y hallazgos fortuitos a lo largo de toda la provincia, ubicados normalmente en las arterias naturales que facilitan la comunicación⁶². La estabilidad política y las nuevas infraestructuras

57 ESTEBAN, M.: "El poblamiento...", *op. cit.*, pp. 59 y 64. ESTEBAN, M.; IZQUIERDO, M. T.: *op. cit.*, p. 398.

58 Últimamente identificado con Santiagomendi (Astigarraga) y la Badia de la Concha, en relación con el material romano aparecido en la zona. ESTEBAN, M.: "La vía...", *op. cit.*, p. 29. ESTEBAN, M. C.; IZQUIERDO, M. T.: "Acerca de la costa cantábrica, el bajo Urumea en época antigua y el *Morogi* pliniano", *Munibe*, 57, 2, 2005, pp. 401-402. CEBERIO, M.: "Nuevas aportaciones...", *op. cit.*, p. 238.

59 Los restos romanos hallados en Zarautz-Getaria podrían situar aquí el *oppidum* de *Menosca*. ESTEBAN, M.: "La Vardulia...", *op. cit.*, pp. 186 y 191. ARAGÓN, A.; PÉREZ CENTENO, J. M.; ALBERDI, X.: "Quince años de investigaciones histórico-arqueológicas en torno a Getaria", *Munibe*, 57, 2, 2005, pp. 435-451. IBÁÑEZ ETXEBERRIA, Á. (ed.): *Santa María la Real de Zarautz (País Vasco) continuidad y discontinuidad en la ocupación de la costa vasca entre los siglos V a. C. y XIV d. C.*, Aranzadi, Donostia, 2009.

60 A pesar de que Plinio ubica *Vesperies* en la costa vándula, algunos historiadores han querido identificarlo con Eibar, Azpeita o Forua (Gernika). SANTOS, J.; EMBORUJO, A.; ORTIZ DE URBINA, E.: *op. cit.* p. 463. ORTIZ DE URBINA, E.: "Organización...", *op. cit.*, p. 276. Sucede lo contrario con *Tritium Tuboricum* pues, aunque Ptolomeo lo sitúe en el interior, Barandiarán trató de ubicarlo en el barrio Astigarribia de Mutriku. Desconocemos dónde podría encontrarse *Tabuca*, sobre las diferentes hipótesis al respecto, SANTOS, J.; EMBORUJO, A.; ORTIZ DE URBINA, E.: *op. cit.* p. 463.

61 *IBÍDEM*, p. 399.

62 En el Alto Imperio o Principado, además de los asentamientos costeros ya citados, el más importante sería la necrópolis de San Martín de Iraurgi, en Azkoitia. ESTEBAN, M.: "El poblamiento...", *op. cit.*, p. 71. Asimismo, han aparecido restos que indican la presencia de asentamientos menores o temporales, especialmente en el valle del Deba: la cerámica aquitana augustea hallada en la cueva de Iesta II en Mutriku, varios restos de sigillata y cerámica común en el barrio de Astigarribia, en la cueva de Iruaxpe de Aretxabaleta, en las cuevas Ekain IV y Aitzgain de Deba y Oñate, en Bergara, en Leintz-Gatzaga así como en Eskoriatza. ESTEBAN, M.: "El poblamiento...", *op. cit.*, pp. 68 y 70. IZQUIERDO, M. T.: "El comercio de cerámicas en la región cantábrico-aquitana: el testimonio guipuzcoano", *Kobie*, Anejos 6, 1, 2004, p. 383. LÓPEZ, M. M.; GEREÑU, M.; URTEAGA, M.: "El territorio guipuzcoano. Análisis de los elementos romanos", *Isturitz*, 8, 1997, p. 166. PÉREZ DE CENTENO, J. M.: "San Andrés de Astigarribia (Mutriku): V campaña de excavaciones", *Arkeoikuska* 2004, pp. 125-126. Fuera del valle del Deba, tendríamos entre otros los yacimientos de Urbia y Altzania, relacionados con el mundo pastoril, la iglesia parroquial San Joan Bautista de Belauntza, la cueva de Amalda en Zestoa y materiales dispersos hallados en varios puntos del Goierri, mencionados más arriba. ALBERDI, X.; PÉREZ DE CENTENO, J. M.: "Iglesia parroquial de San Juan Bautista", *Arkeoikuska* 2009, pp. 340-341. ESTEBAN, M.: "El poblamiento...", *op. cit.*, p. 70. LÓPEZ, M. M.; GEREÑU, M.; URTEAGA, M.: *op. cit.*, pp. 156-157 y PÉREZ CENTENO, J. M., "San Esteban...", *op. cit.*, p. 29.

ekonomikoak sendotzeak merkataritzaren garapena ahalbidetu zuten. Arkeologiak erakutsi digunez, ekialdeko Kantaurialdeak merkataritza-harreman sendoak gauzatu zituen Ebro bailarekin eta Galiaren hego-mendebaldearekin, azken horretan *Burdigalak* lehen mailako papera izanik, kostalde atlantikoarekiko erlazioak landuz, zenbait aztarnategi gipuzkoarretan agerturiko zeramikek erakusten duten legez, horien artean *Oiasson* agertutakoak direla azpimarragarriak⁶³.

Mendebaldeko erromatar lurraldeetako biztanle libreen estatutu juridikoa estuki loturik zegoen beren jaiotzako erkidegoaren estatutuarekin, *civitates* guztiek ez zuten eta maila politiko berbera. *Stipendiaria* estatutuz, edo latindar edo erromatar zuzenbidez horni zitezkeen hasieratik edo haien bilakaeran zehar. Barduliarren komunitate guztiak *stipendiariae* ziren; Pliniok hamalau *populi* zirela esaten duen arren, lau bakarrik aipatzen ditu, baina gainerako iturri idatzien laguntzarekin, guztira, hamarren izenak ezagutzea lortu dugu⁶⁴. Kristo ondorengo 74. urtean Vespasiano enperadoreak Hispaniako *civitates*ak *ius latii*arekin, hots, hiritartasun latindarrekin, saritu zituen, eta ondorioz barduliarren *civitates* horiek ere hirien barne antolaketa erromatarra egokitu ziren. Testuinguru berri horretan, udal gobernuan urtebetez parte hartzeko eskubidea zuten hiriko oligarkek hiritartasun

...

Kobie Anejos 6, 1, 2004, 383 or.), zeramika arruntak herri bereko Astigarribia auzoan (PÉREZ DE CENTENO, J. M.: "San Andrés de Astigarribia (Mutriku): V campaña de excavaciones", *Arkeoikuska* 2004, 125-126 orr.), Aretxabaletako Iruaxpe kobazuloan (LÓPEZ, M. M., GEREÑU, M., URTEAGA, M.: "El territorio guipuzcoano. Análisis de los elementos romanos", *Isturitz*, 8, 1997, 166 or.), zenbait sigilata hispaniar eta zeramika arruntaren zatiak Debako Ekain IV eta Oñateko Aitzgain kobazuloetan, Bergaran, Leintz-Gatzagan eta Eskoriatzan (ESTEBAN, M.: "El poblamiento...", *op. cit.*, 68 eta 70 or.). Debako arrotik kanpo Urbian eta Altzarian artzai munduarekin loturiko zenbait terra sigillata hispaniar agertu ziren (LÓPEZ, M. M., GEREÑU, M., URTEAGA, M.: *op. cit.*, 156-157 orr.; PÉREZ CENTENO, J. M., "San Esteban...", *op. cit.*, 29 or.), baita Belauntzako San Joan Bautista elizan (ALBERDI, X., PÉREZ DE CENTENO, J. M.: "Iglesia parroquial de San Juan Bautista", *Arkeoikuska* 2009, 340-341 orr.) eta Zestoako Amalda kobazuloan (ESTEBAN, M.: "El poblamiento...", *op. cit.*, 70 or.). Bestalde, aurretik aipatutako Goierriko zenbait puntutan agertutako aztarna erromatarrek inguruan egon zitezkeen entitate txikiko asentamendu bat adieraz dezakete (ikusi 28. oin-oharra).

63 Irunen sigillata, hispaniarra, galiarra eta italikoa, Rosas golkoko ardo, Betikako olio eta Mediterraneo ekialdeko elikagai gazituak garraiatzeko anfora zatiak agertu izan dira (UNZUETA, M. A.: "El periodo romano en la vertiente cantábrica de la Comunidad Autónoma Vasca: las evidencias arqueológicas del proceso romanizador (siglos I a. C.-II d. C.)", in: Fernández, C. (arg.), *Los finesterres atlánticos de la Antigüedad. Época prerromana y romana*, Ayuntamiento de Gijón, Madrid, 1996, 165-170.orr; URTEAGA, M.: "El puerto...", *op. cit.*, 106. or.).

64 Plin. *NH* III, 26; IV, 110; Ptol. *Geog.* II, 6, 9; II, 6, 66. Maila baxuenean hiri *stipendiariae*-ak edo zergapekoak zeuden, hau da, hiri edo komunitate indigena baten ondorengoak eta inperioaren barruan egon arren, erromatar hirien saretik kanpo gelditzen zirenak, beren arau propioen arabera gobernatuz. Erromarekiko zuten menpekotasuna presio fiskal indartsu batek eta beharrezkoak zenean armadarako tropa laguntzaileak eskaintzeak definitzen zuen. Hiri peregrinoak *municipia* izatera bi bideren bitartez irits zitezkeen, batetik autoritateek arrazoï batengatik edo besteagatik komunitateari bere osotasunean eskainita eta bestetik, norbanakoak bere merituegatik hiritartasun erromatarra lortzea berarentzat eta bere ondorengoentzat, normalean enrolatuz. Ondoren *municipia*-k zeuden, promozio politiko bat jasan zuten *civitates* peregrinoak ziren eta Erromari imitatutako erakundeen arabera antolatzen ziren, plebeaz ezberdintzen ziren oligarkek edo dekurionek *ordo* bat hala nola *civitas*-eko kuria edo udal senatua osatzen zuten eta udal magistraturak betetzen zituzten. Erromatar zuzenbideko edota Kolonia ziren hiriguneetako hiritarrek eskubide guztiak zituzten. Ezin zen aldi berean zuzenbidez bi hirien hiritarra izan eta estatutu ezberdinen mosaiko hau dela-eta, Errepublikan eta Printzipatuaren garaian *civitas*-a zen, eta ez probintzia, nortasun pertsonalaren euskarria (ORTIZ DE URBINA, E.: "Organización...", *op. cit.*, 254-255 orr.; LE ROUX, P.: *op. cit.*, 47-59 orr.).

romanas que posibilitaban el desarrollo económico, impulsaron sobremanera las relaciones comerciales sobre todo con el suroeste galo y el valle medio del Ebro, tal como lo demuestran las piezas cerámicas de origen diverso halladas en los yacimientos, especialmente en *Oiasso*⁶³.

Por lo que se refiere a la condición administrativa de los habitantes de estas *civitates*-ciudades con respecto al Imperio romano, hay que decir que el estatuto jurídico de los pobladores libres de Occidente estaba estrechamente ligado al carácter político de la comunidad donde habían nacido, ya que todas las *civitates*-ciudades no se regían mediante las mismas normas de Derecho. Las comunidades podían ser, o bien estipendarias, el nivel más bajo, o bien de derecho latino o romano dependiendo del tipo de relación que habían establecido con Roma. Según Plinio el Mayor, había catorce comunidades várdulas, de las que hoy sólo conocemos diez, y todas ellas eran estipendarias⁶⁴. En el año 74 d. C. el emperador Vespasiano premió a la totalidad de las *civitates*-ciudades hispanas con el *ius latii*, es decir, otorgó el estatuto latino a todas aquellas comunidades que de antemano no la tenían. En consecuencia todas las *civitates*-ciudades várdulas habrían podido adaptarse al modelo municipal romano, ofreciendo a las élites locales que dirigían la comunidad la posibilidad de obtener la plena ciudadanía romana a cambio de ejercer algún cargo municipal durante un año⁶⁵. No obstante, para el común de la población el modo más habitual de obtener la ciudadanía de pleno derecho para integrarse en el sistema social romano continuó siendo el del enrolamiento en el ejército.

Roma impulsaba el reclutamiento dentro de las comunidades indígenas tan pronto como entraba en contacto con ellas. Según las fuentes escritas, los várdulos lograron constituir una sola unidad auxiliar que llevase su nombre⁶⁶, la *Cohors I*

63 En Irun apareció sigillata hispana, gálica e itálica así como restos de ánforas que transportaban vino del Golfo de Rosas, aceite de la Bética y salazones del Mediterráneo oriental. UNZUETA, M. A.: "El periodo romano en la vertiente cantábrica de la Comunidad Autónoma Vasca: las evidencias arqueológicas del proceso romanizador (siglos I a. C.-II d. C.)", en FERNÁNDEZ, C. (ed.): *Los finesterres atlánticos de la Antigüedad. Época prerromana y romana*, Ayuntamiento de Gijón, Madrid, 1996, pp. 165-170. URTEAGA, M.: "El puerto...", *op. cit.*, p. 106.

64 Plin. *NH* III, 26; IV, 110; Ptol. *Geog.* II, 6, 9; II, 6, 66. En el estrato más bajo tendríamos a las comunidades *stipendiariae* o tributarias. Éstas eran las descendientes de las comunidades indígenas que, a pesar de estar integradas en el imperio, se regían con sus propias leyes a cambio de pagar impuestos y ofrecer soldados para las tropas auxiliares del ejército romano. Los miembros de estas comunidades podían alcanzar el grado de *municipia* latinos mediante la concesión de ésta por las autoridades a toda la *civitas* o a título individual prestando servicios al estado romano, tradicionalmente cumpliendo el servicio militar. Después estaban los *municipia* que se regían por instituciones similares a las de los romanos. En ellas había un *ordo*, un grupo de oligarcas o decuriones que se diferenciaban de la plebe y que formaban el senado local o la curia ocupando a su vez los cargos municipales. Un año realizando alguno de esos cargos bastaba para obtener la ciudadanía romana para el individuo y toda su familia. Finalmente estaban los miembros de los *municipia* romanos o las colonias romanas que eran ciudadanos de pleno derecho. No se podía ser al mismo tiempo ciudadano de más de una comunidad y debido a este mosaico de diferentes estatutos municipales, durante el periodo republicano y altoimperial fue la *civitas*, y no la provincia, el agente identificados de los habitantes libres. ORTIZ DE URBINA, E.: "Organización...", *op. cit.*, pp. 254-255. LE ROUX, P.: *op. cit.*, pp. 47-59.

65 ORTIZ DE URBINA, E.: "Organización...", *op. cit.*, p. 271.

66 Algunos han querido identificar a la guardia personal de *Bardíaoi* del general Mario activa en torno al año 87 a. C. (Plut. *Mario* 43) con várdulos. Hoy en día dicha hipótesis carece de bases y de seguidores. GARCÍA MORENO, L., "Plutarco "Vita Marii" 43. ¿Várdulos en la guardia de Cayo Mario?", *Euskal Herriaren historiari buruzko biltzarra*, 1, 1988, p. 160.

erromatarra lortu ahal zuten⁶⁵. Aldiz, herritar xeheak erromatar inperioko beste biztanleek zituzten pribilegioak lortzeko zerbitzu militarraz baliatu behar zuen.

Erromak tokiko erkidegoekin kontaktuan sartu bezain laster bertako erreklutamendua bultzatzen zuen bere armadan. Barduliarrek beren izena zeraman tropa laguntzaileen unitate bat osatu zuten⁶⁶: *Cohors I Fida Vardullorum milliaria equitata civium Romanorum*⁶⁷. Unitate militar horri lotuta agertu diren inskripzioek aditzera ematen dute *Britanni*ko mugan kantonaturik egon zela, gutxienez K.o. 98tik (lehen aipamenen data) 253ra arte (azken aipamena)⁶⁸. Edonola, ezin dugu ahantzi I. Kohorte horren barduliar jatorrizko soldaduak, gehienez hogeita bost urtez zerbitzatu eta lizentziatu ondoren (edo hiltzen baziren, are lehenago), kanpamentu inguruko biztanleek (Britania iparraldekoek) ordeztuko zituztela⁶⁹.

Nahiz eta iturri gutxi izan, *civitates*en egiturek eta zerbitzu militarra bete izanak frogatzen dute barduliarrak, Hispania eta Galiako gainerako herrien antzera, erromatar azpiegituretan erabat integraturik egon zirela. Azkenik, hirien sustapen-sistema eta armadaren papera probintzietako gizartean zeharo aldatu ziren 212. urtean inperio guztian Karakala enperadoreak hiritartasun erromatarra probintzietako biztanle libre guztiei ematean⁷⁰.

3.2.2. Inperio beranta

Inperio Berantiarra edo Antzinate Berantiarra deritzon garaia K.o. III. mendearen erdialdean hasi zen, Augustok eraikitako egitura politiko-administratiboak ahitze-zantzuak erakusten hasi zirenean, egitura inperiala mantentzen zuten hiru zutarri nagusiak urratu ondoren: lehenengoa muga edo *limes*etan finkatutako legioetan oinarritutako botere militarra zen, garai horretan godo, franko, alaman,

65 ORTIZ DE URBINA, E.: "Organización...", *op. cit.*, 271 or.

66 Batzuek Plutarkok K.a. 87an kokatzen duen Mario jeneralaren *Bardiaoi*-en goardia pertsonala (Plut. *Mario* 43) barduliarrekin identifikatu nahi izan dute. Hala ere hipotesi honek ez du oinarririk eta gaur egun ia jarraitzailek ere ez (GARCÍA MORENO, L., "Plutarco "Vita Marii" 43. ¿Várdulos en la guardia de Cayo Mario?", *Euskal Herriaren historiari buruzko biltzarra*, 1, 1988, 160 or.).

67 *Equitata* bere izenaren parte izateak infanteriako 6-10 zenturiak eta zaldetiazko 3-6 turmek osaturiko unitate mixto bat zela adierazten digu (LE BOHEC, Y.: *El ejército romano*, Ariel Historia, Bartzelona, 2013, 34-38 orr.). Errepublikaren garaian eta Printzipatuaren hasieran, tropa laguntzaileak hiritartasun erromatarrik ez zuten gizonek hornitzen zituzten, borroketan "lantza punta" gisa erabiliak izanik. Baina eskaintzen zen soldata onak erakarrira, K.o. II. mendean bertan izena ematen zuten hiritar erromatarrik eta indigena erromatarriak ugaritu egin ziren eta barbaroak bakarrik jasoko zituen unitate berri bat eratu zen, *numeri* izenekoak, tropa laguntzaileek aurreko mendean zuten funtzioa betetzeko (IDEM: *op. cit.*, 38 or.). Dena den ez dago argitzerik kohorte barduliar honek *civium Romanorum* izenagotia horregatik daraman edota momentu zehatz batean bere guda merituengatik lortu zuen. Esan beharra dago K.o. 98. eta 105. urteko bi inskripzioetan ageri diren unitate militar ugaritako soldadu batzuk, horien artean tropa barduliarreko zenbait daudelarik, hiritartasun erromatarrekin sarituak izan zirela (CIL XVI, 43; 51), agerian utziz aurretik ez zirela eskubide beteko hiritarrak.

68 SPAUL, J., *Cohors. The evidence fort and a short history of the auxiliary infantry units of the imperial roman army*, British Archaeology 841, Oxford, 2000, 105-106 orr.

69 LE BOHEC, Y.: *op. cit.*, 126 or.

70 ORTIZ DE URBINA, E.: "Organización...", *op. cit.*, 278 or.

*Fida Vardullorum milliaria equitata civium Romanorum*⁶⁷. Varias inscripciones ligadas a esta unidad militar, indican que estuvo acuartelada en el *limes* de *Britannia* al menos desde el año 98 d. C. hasta su última mención en el 253 d. C.⁶⁸. Aún así, no debemos olvidar que en esta cohorte várdula habría habido soldados de origen várdulo como mucho durante veinticinco años, ya que una vez muertos o licenciados los puestos vacantes eran cubiertos por hombres que habitaban cerca de los campamentos militares, en este caso, indígenas del norte de Britania⁶⁹.

A pesar de la parquedad de las fuentes, hemos visto cómo los várdulos fueron integrándose en el Imperio a través de las estructuras municipales de la *civitas* y el enrolamiento en el ejército, al igual que lo hacían el resto de las comunidades galas e hispanas. Sin embargo, el sistema de promoción que ofrecían las *civitates*-ciudad y el ejército se verá profundamente alterado cuando en el 212 d. C. el emperador Caracalla otorgue el estatuto de ciudadanía romana a todos los habitantes libres del imperio, lo cual alterará para siempre las bases sobre las que descansaba la estructura organizativa del Imperio romano⁷⁰.

3.2.2. El Imperio Tardío

El inicio del punto de inflexión de esta era de cambios se sitúa tradicionalmente en el s. III d. C., cuando la estructura político-administrativa creada por Augusto comienza a mostrar síntomas de agotamiento en el momento en el que los tres pilares que sostenían el imperio se ven amenazados: en primer lugar, el poder militar de las legiones situadas en las fronteras es puesto en duda por los continuos ataques de godos, francos, alamanes, persas y otros bárbaros; en segundo lugar, el sistema económico de producción se ve colapsado por el incremento de gastos especialmente en la rama de la administración y el ejército; por último, el liderazgo del emperador que hacía funcionar el sistema es constantemente puesto en cuestión por parte de diferentes usurpadores. A partir del 284 d. C., Diocleciano (284-305) y su sucesor Constantino (306-337), llevaron a cabo una reestructuración de las bases que sustentaban el Imperio para garantizar su supervivencia: reorganizar el ejército y aumentar

67 Que lleve el sobrenombre de *equitata* significa que se trataba de una unidad mixta formada por 6-10 centurias de infantería y 3-6 turmas de caballería. LE BOHEC, Y.: *El ejército romano*, Ariel Historia, Barcelona, 2013, pp. 34-38. En época republicana e imperial las tropas auxiliares las conformaban aquellos que carecían de ciudadanía romana, utilizados como "punta de lanza" durante las batallas. Pero a partir del s. II d. C., atraídos por el buen sueldo que se cobraba, en estas cohortes fueron enrolándose cada vez más ciudadanos romanos y se crearon nuevas unidades que albergasen únicamente a bárbaros y que cumplieren la función de las tropas auxiliares de antaño, los *numeri*. *IBIDEM*, p. 38. De todas maneras, desconocemos si el título de *civium Romanorum* que lleva nuestra cohorte se deba a dicho fenómeno o a que la obtuviesen por sus propios méritos militares. Cabe decir que en los años 98 y 105 d. C., varios soldados de dicha cohorte fueron premiados con la ciudadanía romana (CIL XVI, 43; 51), dejando claro que anteriormente no disponían de ella.

68 SPAUL, J., *Cohors. The evidence fort and a short history of the auxiliary infantry units of the imperial roman army*, British Archaeology 841, Oxford, 2000, pp. 105-106.

69 LE BOHEC, Y.: *op. cit.*, p. 126.

70 ORTIZ DE URBINA, E.: "Organización...", *op. cit.*, p. 278.

pertsiar eta beste hainbat barbaroren erasoek zalantzan jarria; bigarren zutarriak, produkzio ekonomikoaren sistemak, administrazioaren eta bereziki armadaren gastuen igotzearen ondorioz, gainezka egin zuen, eta ez zen gai izan egoera berriari aurre egiteko; azkenik, usurpatzaileek sistema funtzionarazten zuen enperadorearen lidergo sendoa (hirugarren zutarria) behin eta berriz mehatxatu zuten.

Kristo ondorengo 284tik aurrera, Dioklezianok (K.o. 284-305) eta bere ondorengo Konstantinok (K.o. 306-337) inperioaren oinarriak berregituratu zituzten estatu erromatarren iraupena segurtatzeko: armada handitu eta berrantolatu zuten; zentralizazioa eta burokratizazioaren sendotzea ahalbidetzen zuten erreformak egin zituzten administrazioan (ekonomiaren eraberritzeari ateak zabalduz); eta bukatzeko, egitura inperialetan monarkiaren funtzioa ziurtatzen zuen mezu ideologikoa eguneratu zuten, enperadorearen irudia izaera jainkotiarrez apainduz eta erakunde kolegiatu gisa antolatuz. Zaharberritze horietatik guztietatik jaiotako estatu berria erabat finkatu zen Teodosiok (K.o. 378-395) erlijio kristaua besarkatu eta inperioaren dogma ofiziala izendatu zuenean⁷¹.

Adaketen garai horietako zenbait gertaerak Gipuzkoako lurraldean ere eragin zuten zuzenki, batez ere Dioklezianok egindako erreformak erromatar inperioko mapa aldatu zuelako. Dioklezianok probintzia kopurua bikoiztu eta *diozesis* izeneko hamabi barrutitan integratu zituen. Jarraian, hamabi diozesi horiek lau prefekturatan bildu zituen, horien artean Galietakoa, *Augusta Trevirorum* (Treveris, Alemania) hiribururekin. Erreforma horien ondorioz, Erromako hiriak erdigune politiko eta administratiboaren rola galdu zuen prefekturako hiriburuen mesedetan. Testuinguru horretan, badirudi Iruña-Veleiako eta *Lapurdumeko* (Baiona) garnizio militarrek hurrengo urteetan ezarri zirela, polizia-lanak egiteko agian⁷².

Iberiar penintsulan, *Citerior*-a zatituz lau probintzia eratu ziren: *Gallaecia*, *Carthaginensis*, *Balearica* eta *Tarraconensis*, egungo Hego Euskal Herria azken honen barruan gelditu zelarik, eta Hispania osoko hiriburua Meridan ezarri zen. Galiak ere zenbait probintzietan berrantolatu ziren, Akitania hirutan banatuz: Akitania I, Akitania II eta Pirinio zein Garona arteko lurraldeak biltzen zituen *Novempopulani*. Hegoaldeko Galia *Dioecesis Viennensis* gisa antolatu zen, Bordelen finkatuz administrazio- eta erabaki-erakundeak. Une horretatik aurrera, Hispaniako hiriburua eta bikarioa Meridan kokatzeak, Galia hegoaldekoak Bordelen eta hauek, aldi berean, Galietako Prefekturaren mendeko izateak, Treveris erdigune politiko-administratiboa zelarik, hiru gunek horiek lotzen zituen ardatza indarrarazi zuten, hein handi batean *Tarraco*-Erroma ibilbidea baztertuta. Handik aurrera, baliabide ekonomiko eta militar guztiak Germaniako *limes* aldera zuzentzeak bide-sarearen hobekuntza izan zuen ondorio, diozesietako hiriburuen eta Treverisen arteko

71 TORREGARAY, E.: "La Antigüedad Tardía en el País Vasco (siglos III-IV d. C.)", in: Barruso, P., Lema, J. A. (koord.), *Historia del País Vasco. Prehistoria y Antigüedad*, Hiria, Donostia, 2006, 348 or.

72 *IBÍDEM.*: *op. cit.*, 350 or.

sus efectivos; impulsar reformas que favoreciesen la centralización y burocratización, abriendo las puertas a la reforma económica; y para acabar, actualizar el mensaje ideológico que aseguraba la posición de la realeza, dotar a ésta de un carácter divino y transformarla en una institución colegiada. De estas reformas surgirá un nuevo estado que se verá completado con la adopción del cristianismo como única religión oficial del Imperio por el emperador Teodosio (378-395)⁷¹.

Algunos de los acontecimientos de este periodo influyeron de forma directa en Gipuzkoa, principalmente la reforma administrativa de Diocleciano ya que alteró el mapa del Imperio romano. El emperador dobló el número de provincias del imperio y las reunió en doce distritos llamados diócesis, agrupadas a su vez en cuatro prefecturas, entre las que se encontraba la de las Galias cuya capital se situó en *Augusta Trevirorum* (Tréveris, Alemania) y que se convirtió así en el centro administrativo directo del cual dependía el territorio guipuzcoano y, por ende, Andoain. La consecuencia más importante de todas estas reformas fue que la ciudad de Roma dejó de ser el centro político y administrativo del imperio delegando ese papel en las capitales de las prefecturas. Parece ser que el establecimiento de las guarniciones militares en Iruña-Veleia y *Lapurdum* (Baiona) tuvo lugar por estas fechas, tal vez con el objetivo de que cumplieran labores policiales⁷².

En el caso de la diócesis de Hispania, con capital en Mérida, la provincia *Citerior* se dividió en cuatro nuevas provincias a lo largo del siglo IV: *Gallaecia*, *Carthaginensis*, *Balearica* y *Tarraconensis*, siendo en ésta última donde se encontraba el actual País Vasco peninsular. Desde este momento, con el foco de poder centrado en Mérida, dependiente a su vez de Tréveris, capital de la prefectura, se reforzó de manera notable la línea que unía dichas ciudades quitando importancia y protagonismo al trayecto *Tarraco*-Roma. De ahora en adelante todos los recursos económicos y militares serán dirigidos hacia el Nordeste, al *limes* (frontera) germano fomentando el amejoramiento de las comunicaciones, especialmente las que posibilitaban la relación entre las capitales, como el *Iter XXXIV Ab Asturica Burdigalam*⁷³.

En consecuencia, queda de manifiesto que los actuales territorios guipuzcoanos no habrían sido ajenos a estos cambios, ya que dicha calzada, que atravesaba la región, impulsó en ellos cierto dinamismo político y económico. A pesar de que algunos asentamientos creados en la época del Principado llegaron un tanto debilitados e incluso casi despoblados al s. IV, la nueva situación garantizó su supervivencia a costa de que modificasen su funcionalidad en el tejido provincial⁷⁴. Gracias al *Iter-XXXIV*, el resto de los medios de comunicación establecidos en el Alto Imperio no sufrieron grandes alteraciones y, de este modo, la *via maris* continuó siendo la principal en el territorio. Sin embargo, los núcleos de la costa no pudieron sostener

71 TORREGARAY, E.: "La Antigüedad Tardía en el País Vasco (siglos III-IV d. C.)", en BARRUSO, P.; LEMA, J. A. (coord.): *Historia del País Vasco. Prehistoria y Antigüedad*, Hiria, Donostia, 2006, p. 348.

72 *IBÍDEM*, p. 350.

73 *IBÍDEM*, pp. 352-353.

74 *IBÍDEM*, p. 354.

komunikazio azkarra ahalbidetzen zuten zatiak onura gehien jaso zituztelarik, horien artean *Ab Asturica Burdigalam Iter-XXXIV*-ak⁷³.

Hori dela-eta, egungo Euskal Herriko lurraldeak ez ziren alboratuak izan, alderantziz, nolabaiteko dinamismo politiko eta ekonomikoa bizi izan zuten. Printzipatuaren garaiko zenbait gune populatu IV. menderako ahulduta edo jendez hustuta zeuden arren, egoera berriak bizirik iraun zutenen jarraitutasuna sendotu zuen, batzuek aurreko mendeetako funtzioak aldatu behar izan bazituzten ere⁷⁴. *Iter-XXXIV*.aren iraupen arrakastatsuen eraginez, Goi Inperioan finkatutako beste bideek beren ohiko funtzioarekin jarraitu zuten, eta, horien artean, *via mari-sak* jarraitu zuen nagusi izaten. Kostako esparruek, inperio erromatar berantiarrek probintzietan bultzatzen zuen dinamikaren parte ziren heinean, ezin izan zioten goi inperioan zuten protagonismoari eutsi, eta nortasun propioa mantentzeko joera zuten gune populatu txikien sareari batu zitzaizkien (besteak beste, eskualdeko zeramikaren produkzioak islatzen duen legez⁷⁵).

Esan bezala, mendebaldeko inperioko gune nagusi askok populazioa galdu eta gainbehera bat pairatu zuten, jarduera ekonomikoak murrizturik edo eraldaturik eta, zenbaitetan, are desagerturik ere. Inguruko *civitas* nagusia, *Oiasso*, gainbehera horren adibide da. Higerreko lurmuturrean agerturiko aztarnak itsas trafikoak VI. mende arte jarraitu zuela erakusten duten arren⁷⁶, III. mendearen erdialdetik aurrera hiriguneak endekapen eta txikitze bortitz bat jasan zuen, agian meatze-lanak alde batera uztearen ondorioz; eta, aztarna arkeologikoez diotenaren arabera, V. mendetik aurrera ia jendez hustuta zegoen *Oiasso*, beharbada meatzaritza agortuz joan zelako⁷⁷.

Dena den, Bidasoa alde batera utziz gero, arkeologiak ikuspegia aberatsa eskaintzen digu Gipuzkoarentzat Antzinate Berantiarrean. Oriaren arroan Arbiungo aztarnategiarekin antza duten hiru aztarnategi agertu dira: Irigain Usurbilen, Bizikatxo zonaldea Orio-Aginaga artean⁷⁸ eta Goiburuko San Esteban Andoainen.

Goiburuko mendixka Oria eta Leizaran ibaien arroek bat egiten duten puntuan dago kokaturik. Gune estrategiko garrantzitsu bat da, bertatik Oria bailararen zati handi bat, Zizurkil-Adunako ibia eta, iparralderantz, Buruntza mendia eta Lasarte kontrolatzen direlako⁷⁹. Perez Centenok argitzen duen bezala, udalerriko

73 *IBÍDEM*: *op. cit.*, 352-353 orr.

74 *IBÍDEM*: *op. cit.*, 354 or.

75 ESTEBAN, M.: "La vía...", *op. cit.*, 39 or.

76 BENITO, A. M.: *op. cit.*, 158 or.; URTEAGA, M.: "El puerto...", *op. cit.*, 207 or.

77 URTEAGA, M.: "El puerto...", *op. cit.*, 106 or.; "Colina de Urkabe, Peludo Torrea y Trapaga", *Arkeoikuska*, 2010, 384-385 orr. VII. mendean idatzitako *Ravenako Anonimoak Ossaron-en (Oiasso)* existencia aipatzen du (I, 42 eta 45).

78 CEBERIO, M.: "Primeros testimonios de época antigua en el tramo final del valle del Oria: el yacimiento de Irigain (Usurbil, Gipuzkoa)", *Munibe*, 61, 2010, 247-248 orr.

79 ESTEBAN, M.: "La vía...", *op. cit.*, 35-36 orr.

con la misma intensidad el protagonismo de antaño y decrecieron en su importancia, tal como lo demuestra la producción y difusión de la cerámica en la región⁷⁵.

Sabemos que, en general, muchas *civitates*-ciudades de cierta entidad del Imperio Occidental vieron su población mermada, sus actividades económicas tradicionales disminuidas o modificadas y entraron en decadencia llegando incluso a desaparecer. La *civitas*-ciudad principal del entorno guipuzcoano *Oiasso* es ejemplo de dicha decadencia, pues a pesar de que el tráfico marítimo que discurría por el Cabo de Higer siguió activo hasta al menos el s. VI⁷⁶, el centro urbano sufrió a partir del s. III un declive y empequeñecimiento notable quedando casi despoblado para el s. V, tal vez motivado por el cese de la actividad minera en la zona⁷⁷.

Sin embargo, a diferencia de lo ocurrido en la costa, la arqueología nos muestra un panorama bastante rico para el resto de la Gipuzkoa tardoantigua, dando a entender que, probablemente, la supervivencia del *Iter* XXXIV permitió una cierta dinámica urbana en el interior del territorio. Precisamente en el valle del Oria fueron hallados tres yacimientos que sugieren esta vitalidad: Irigain en Usurbil, Bizikatxo en Orio-Aginaga⁷⁸ y San Esteban de Goiburu en Andoain. El monte Goiburu se encuentra en el punto donde se unen los ríos Leitzaran y Oria, y desde su posición se domina gran parte del valle que lleva el nombre de este último, el vado de Zizurkil-Aduna, Lasarte y el monte Buruntza⁷⁹. Tal como afirma J. M. Pérez de Centeno, además de la antigüedad de la vieja ermita de San Esteban de Goiburu, fue el supuesto origen latino de los topónimos Andoain y Bulano (nombre del case-río cercano al yacimiento), los que atrajeron su atención en un primer momento⁸⁰. Según Caro Baroja, el topónimo de "Andoain" estaría formado por el *nomen Antonius* y el sufijo latino "-ain" y puede que el término Bulano fuera formado de manera similar⁸¹. En cualquier caso, lo cierto es que nos encontramos ante un enclave arqueológico que muestra una extraordinaria vitalidad en la época tardoantigua, lo que ayuda a pensar que el territorio no era una zona en decadencia profunda, sino únicamente con una actividad ralentizada, como consecuencia de las nuevas condiciones geo-administrativas.

En la intervención arqueológica fueron hallados trozos de cerámica común no torneada, restos de escoria y mineral de hierro así como un cuchillo y un clavo del mismo material. Pérez Centeno ha visto similitudes entre esta última pieza y otras

75 ESTEBAN, M.: "La vía...", *op. cit.*, p. 39.

76 BENITO, A. M.: *op. cit.*, p. 158. URTEAGA, M.: "El puerto...", *op. cit.*, p. 207.

77 URTEAGA, M.: "El puerto...", *op. cit.*, p. 106. "Colina de Urkabe, Peludo Torrea y Trapaga", *Arkeoikuska*, 2010, pp. 384-385. El *Anónimo de Ravena* escrito en el s. VII menciona la existencia de *Ossaron* (I, 42 y 45).

78 CEBERIO, M.: "Primeros testimonios de época antigua en el tramo final del valle del Oria: el yacimiento de Irigain (Usurbil, Gipuzkoa)", *Munibe*, 61, 2010, pp. 247-248.

79 ESTEBAN, M.: "La vía...", *op. cit.*, pp. 35-36.

80 PÉREZ CENTENO, J. M.: "Valles del río Oria y el Urumea (Andoain, Hernani)", *Arkeoikuska* 2000, p. 115.

81 CARO BAROJA, J.: *op. cit.*, p. 84. ESTEBAN, M.: *El País Vasco...*, *op. cit.*, p. 433.

toponimiak eta San Estebango ermita zaharrak erakarrita egin ziren zundaketak⁸⁰; izan ere, "Andoain" herri-izena *Antonius nomenak* eta latindar erroko "-ain" atzizkiak osaturikoa izan daiteke, (bere garaian Caro Barojak aditzera eman zuenez), eta baliteke "Bulano" k ere, zundaketak egin ziren orubearen ondoko baserriaren izenak, jatorri bera izatea⁸¹. Hala balitz, Caro Barojaren ustetan, gisa horretako toponimoek garai bateko erromatar lur-jabeen landa jabetzak, hots *fundiak*, adieraziko lituzkete.

Esku-hartze arkeologikoan, tornu gabe eginiko zeramika arrunta eta burdinaren produkzioaren eta eraldaketaren jardueraren arrastoak erakusten zituzten zenbait aztarna berantiar aurkitu ziren: mea, zepa hala nola burdinazko labana bat eta iltze bat (azken hori Perez Centenok Arbiungo, Urezberoetako Kanposantu Zaharreko eta Zarautz Jauregiko aztarnategietan agertutako iltzeekin parekatzen du⁸²). Goiburuko aztarnategia, K.o. IV. eta V. mendeen artean burdina lantzen zuen gunen populatutzat jo da, Arbiun, Bizikatxo eta Irigainekoekin konparatu daitekeena⁸³. Burdinaren lanketa autokontsumorako edo, gehienez, inguruko biztanleen beharrak asetzeko adinakoa izanen zen, aztarnategiko ekonomiaren tokiko izaera frogatuz. Goiburun eta garai bereko beste aztarnategietan agertutako tornu gabe eginiko zeramika arrunta, ordea, Kantauri aldera, Ebroko bailararen erdialdera eta Akitaniako hegoaldera zabaltzen denaren tipologiakoa da. Gertakizun hori argitze-rako orduan, arkeologo batzuek elkarren artean baztertzailak ez diren bi arrazoi plazaratu dituzte: batetik, zeramika gehienez jatorri bera onartzea, modu horretan material horiek ekoitziko zituzten lantegien dinamismoa eta eskualdean zuten eragina agerian utzita; bestetik, agian, zeramika guztiak zonalde zehatz bateko lantegi berberak egin ez zituzten arren, piezek duten antzekotasun hori lurraldeko zenbait eskulangileren arteko nolabaiteko komuntasun kulturalari atxikitzea. Modu batean edo bestean, produktu horien hedadurak bezeroen joera sozial zein oturuntza-ohitura antzekoak ematen dituzte aditzera. Horrela, betiere erromatar inperioaren probintzien testuinguruan, zeramika horiek iradokitzen dute Pirinioetako bi aldeetan antzeko ezaugarri ekonomiko eta kulturalak zituen eskualde bat zegoela⁸⁴.

80 PÉREZ CENTENO, J. M.: "Valles del río Oria y el Urumea (Andoain, Hernani)", *Arkeoikuska* 2000, 115 or.

81 CARO BAROJA, J.: *op. cit.*, 84-86 orr.; ESTEBAN, M.: *El País Vasco...*, *op. cit.*, 433 or.

82 PÉREZ CENTENO, J. M.: "San Esteban...", *op. cit.*, 34-35 eta 40 or.

83 *IBÍDEM*: 48 eta 50 or.

84 ESTEBAN, M., IZQUIERDO, M. T., MARTÍNEZ, RÉCHIN, F.: "Producciones de cerámica común no torneada en el País Vasco peninsular y Aquitania meridional: grupos de producción, tipología y difusión", *Sautuola*, 14, 2008, 210-211 orr.

encontradas en los yacimientos de Arbiun, Urezberoetako Kanposantu Zaharra y Zarautz Jauregia⁸², asimismo el asentamiento de Goiburu presenta parecidos de nuevo con Arbiun pero también con los núcleos de Bizikatzko e Irigain, ya que todos ellos son yacimientos de los siglos IV-V d. C. donde se trabajaba el hierro⁸³. Esta actividad da muestras del carácter local de la economía de estos asentamientos, ya que producirían para su consumo o como máximo, para suplir las necesidades de las poblaciones colindantes. Sin embargo, la cerámica común aparecida en Goiburu y en los núcleos de cronología similar, es de una tipología que se extiende por el Cantábrico, el valle medio del Ebro y el sur de Aquitania. A la hora de explicar este fenómeno, algunos arqueólogos han propuesto dos hipótesis que no son excluyentes sino complementarias entre sí: por un lado se podría admitir el origen común de esta cerámica, demostrando el dinamismo y la influencia que tendrían en la región los talleres que la producían. Por otro lado, si se descartara la posibilidad de que toda la cerámica procediese de los talleres de un lugar específico, podría pensarse que la similitud de todas esas piezas se debiera a unos patrones culturales similares de los artesanos que las fabricaban. De una manera o de otra, la difusión de este producto indicaría un nivel social y unos gustos culinarios muy parecidos entre los clientes que lo compraban. De esta forma, esta cerámica señalaría la existencia dentro del contexto provincial tardorromano de una región a ambos lados de los Pirineos cuyos habitantes compartían unas características económicas y culturales similares⁸⁴.

Como hemos visto, la arqueología nos muestra una realidad muy dinámica situada a grandes rasgos en el Cantábrico Oriental de la cual Andoain⁸⁶, por la estratégica posición que ocupa en el valle del Oria, también es parte. En el 455 d. C., 400 piratas hérulos, tras haber sido rechazados en las costas de *Gallaecia* e iniciar el viaje de retorno a su hogar, atacaron y saquearon las costas de Cantabria y Vardulia⁸⁷, señalándonos de manera indirecta que eran unas regiones con unos núcleos poblados que atraían la atención de quienes buscaban botines. El control romano sobre Hispania fue disminuyendo a lo largo de la centuria hasta que desapareció definitivamente en el 472 d. C. tras la ocupación de la Tarraconense por los visigodos. Pese a ello, al igual que la *via maris* resistió al turbulento siglo V, podría pensarse que los asentamientos del territorio también lo harían, aunque debilitados y adaptándose a la nueva realidad surgida tras la caída del Imperio Romano de Occidente⁸⁸. Gran parte del dinamismo de la costa guipuzcoana así como de sus

82 PÉREZ CENTENO, J. M.: "San Esteban...", *op. cit.*, pp. 34-35 y 40.

83 *IBÍDEM*, pp. 48 y 50.

84 ESTEBAN, M.; IZQUIERDO, M. T.; MARTÍNEZ, RÉCHIN, F.: "Producciones de cerámica común no torneada en el País Vasco peninsular y Aquitania meridional: grupos de producción, tipología y difusión", *Sautuola*, 14, 2008, pp. 210-211.

85 PÉREZ CENTENO, J. M.: *op. cit.*, pp. 46-47.

86 ESTEBAN, M.: "La vía...", *op. cit.*, p. 39.

87 *Hyd. Chr.* 164.

88 ESTEBAN, M.: "La vía...", *op. cit.*, p. 38, nota al pie n.º 131.



15. irudia. Goiburuko San Esteban aztarnategian aurkitutako zeramikaren zatiak⁸⁵.

Ilustración 15. Fragmentos de cerámica de época romana hallados en el yacimiento de San Esteban de Goiburu⁸⁵.

Ikusi dugun bezala, arkeologiak Kantauri ekialdea ekonomikoki inperioan barneratutako gune dinamiko gisa islatzen digu⁸⁶, eta Oriaren arloan posizio estrategikoa duen Andoaingo lurraldeak ere errealitate horretan parte hartu zuen. Kristo ondorengo 455. urtean 400 pirata herulok, *Gallaecian* garaituak izan ondoren beren lurraldera itzultzen ari zirela, Kantabria eta Varduliako kostaldeak eraso eta zakuratu zituzten⁸⁷, eta, era ez zuzenean, adierazi ziguten eskualde horietan erasotzea merezi zuten herrixkak zeudela. Barbaroen etorrerarekin, urte gutxitan, Erroma Hispaniaren kontrola galduz joan zen, eta galera erabatekoa izan zen K.o. 472an bisigodoek Tarraconensea eskuratzean. Dena den, lehenago

85 PÉREZ CENTENO, J. M.: *op. cit.*, pp. 46-47.

86 ESTEBAN, M.: "La vía...", *op. cit.*, 39 or.

87 Hyd. Chr. 164.